

25 ARABA

Altubeko ur-jauzia



Ingurumen-garrantzia

Altubeko ur-jauzia Gorbeia Parke Naturalaren bihotzean kokatua dago. Ibilbidean zehar, ur-jauzirantz goazela eta bertara heldu arte barneratuz goazen basoan pagoak (*Fagus sylvatica*),

haritzak (*Quercus robur*), elorri zuriak (*Crataegus monogyna*), sahatsak (*Salix spp.*) eta hainbat txilar mota (*Daboecia cantabrica*, *Erica vagans*, *Calluna vulgaris*) ikusteko aukera izango dugu.

Altzek (*Alnus glutinosa*) eta lizarrek (*Fraxinus excelsior*) osaturiko baso alubiala nabarmentzekoa da ibai osoan zehar.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 1 km



30 min



BTTz bigarren
desbideratzeraino



Udalerria:

Zuia

Hurbileko herria:

Altube



Ibaia:

Altube



Arrisku faktore bat baino gehiago dago.

Erne ibili ur-jauzira inguratzean



450 m



23 m



401 m



110 m



Altubeko ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu


Altubeko ur-jauzia Arabako Lurralde Historikoaren ipar-mendebaldean kokatzen da, Gorbeialdeko eskualdean, Altube inguruetan, Zuiako udalerrian. A-624 Altube errepidetik abia gaitetzke.

A-624 Altube errepidetik abiatu eta autopista gaineko zubia zeharkatu ondoren, Zazpiehun bat metrotara Olabarrieta baserria topatuko dugu ezkerretara. Inguruetan aparkaleku txiki bat dago eta bertatik basoan barneratzen den bidexkari ekingo diogu.

Zazpiehun eta berrogeita hamar bat metrotan egingo dugu bidexkan aurrera, ibaia eskuinean utzita. Bidebanatzera heltzean, ibairaino jaisten den eskuineko bidezidorra hartuko dugu.

Aurrerantz ehun bat metro jarraitu ondoren, berriro ere eskuinera, ur-jauzira bideratuko gaituen beste bidezidor estu bat hartuko dugu.

Ibilbidea urteko edozein sasoiatan egin daiteke, baina euria egiten duen garaian eta urtze-aldien ondoren, errekaaren emaria handiena denean, ur-jauzia bere ederrenean ikusteko aukera paregabean izango dugu.



Deskargatu ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide guztiak hemen:



Wikiloc

Altubeko ur-jauzia



Altubeko ur-jauzia

